

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Udal jabari publikoan mahaiaik eta aulkiak instalatzeagatiko erabilera pribatuagatiko edo aprobetxamendu bereziengatiko tasa arautzen duen 11. Udal Ordenantza Fiskalaren 6. eranskinaren aldaketa jendaurrean jartzea

Udalbatzak, 2020ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, behin-behinean onartu zuen Udal jabari publikoan mahaiaik eta aulkiak instalatzeagatiko erabilera pribatuagatiko edo aprobetxamendu bereziengatiko tasa arautzen duen 11. Udal Ordenantza Fiskalaren 6. eranskinaren aldaketa.

Jakinarazten da erabaki hori, aurrekari guztiekin batera, jendaurrean egongo dela udaletxeko idazkaritzan, hogeita hamar egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, ordenantza fiskalak aldatzeko erabakia behin betiko hartu dela ulertuko da, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 17-3 artikuluekin bat etorritz.

Amurrio, 2020ko maiatzaren 29a

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA